

BERRIA 2010-01-26

Pedro Horrillo eta Igor Astarloa Ermukoak dira, Santa Ana langile auzokoak. Kale berekoak, gainera. Txikitatik lagunak, profesionaletara pasatu arte elkarrekin aritutakoak, hamaika bizipen eta abentura bizi izan dituzte elkarrekin. Arrazoiak ezberdinak dira, baina biek batera utzi dute txirrindularitza, ibilbide luze eta loriatsua osatu ondoren.

'Mundutik' mundura
Igor Susaeta. (Ermua)



Bi lagunek, konfiantza handia baldin bada, ez diote elkarri diosal egiten. Zer esanik ez, ezker- eskuin eta goitik behera ezagutzen duten toki baten topatzen direnean. Hitz goxorik ere ez. Zertarako. «Dios... Pedro berandu dator beti bezala!», kexatu da Igor Astarloa (1976). «La Cabañan gaudela esan diot». Ermuko Santa Ana auzokoen geralekua da. Aldapa piko batean dago, baratza ñimiño baten ondoan. Azkar hitz egiten du Astarloak, eta katutxo bat dauka atezuan. Agertu da Pedro, Pedro Horrillo (1974), ordu laurden geroago. Telefonoz

hizketan ari da. «Aiba, Oscar (Freire) da», esan dio Astarloari, sakelakoa luzatuz. Ez *kaixo*, ez *zer moduz*, ez bosteko berorik. Langile eta etorkin auzo bateko mutilak biak, eurek eraikitako eta ametsez adina abenturaz betetako *mundu* batean hazi eta hezitakoak. Ermuko Santa Ana kalekoak, biak bertan jaiotakoak. Urko mendiaren magalean.

«Zenbat aldatu den auzoa...», harrituta dago Horrillo. Munduratu ziren kalearen erdian daude biak, San Rokeko ez bereizteko klarionaz markatzen zuten asfalto zatiaren gainean; argazkilariaren objektiboari begira, baina hizketan. «Badakizu?» «Ez izorratu!». Bi lagun bezala. Diosalik gabe. Txikitan bezala. Ez dira ari txirrindularitza, baina Santa Ana kaleko *munduan* ikasitakoa baliatu zuten gero munduaren luzetabalean, txirrindulari profesional izan ziren bitartean. Bateran hasi ziren, batera jarraitu, bidean mila abentura bizi elkarrekin, eta batera erretiratu dira, baina horretarako arrazoiak ezberdinak izan dira. *Mundutik* munduratu ziren, eta *mundura* bueltatu dira, bazkalduz BERRIArekin solasaldi atsegina edukitzeko.

Haurtzaroa, kalean Elorretako etxola, eta Orbearen zabortegia

Bien artean bi urteko aldea dago, eta, hortaz, bakoitzak bere «eskolako lagunak» zituen. Halere, ia une oro topo egiten zuten auzoan. «Ez ginen handik ateratzen!». Santa Anatik gorantz, baina, Elorreta baserrirantz jotzen zuten askotan. Hango semeetako bat Astarloaren «lagun mina» zen. Eta han inguruan, hustutako haritz baten gainean, etxola bat egitea bururatu zitzaien. «Egurak hartu, obretan sokak eta oholak lapurtu, eta



gorantz», esan du Horrillok. «Gero, *txitxiburduntzia* egiten genuen, eta patineteekin edo bizikletekin eroak bezala jaisten ginen. Urte asko, dezente iraun zuen etxola hark. Munduko Txapelketa irabazi ondoren, plaka bat jarri zuten han», jarraitu du Astarloak. Bizikleta aipatuta, garai hartako BMX California bat gogoratu du. Orbea bizikleta etxearen fabrika Santa Anatik pare bat kilometrora egonda, hango zabortegira joaten ziren batzuetan. «Pieza zaharrak edo gaizki egindakoak hartzen genituen. Pieza haiekin ikasi genuen mekanika, eta bizikletak osatzen genituen. Esango nuke Igorrek eduki duela bost edo sei modelo diferenterekin egindako bizikletaren bat». Zaletasunagatik egiten zuten batetik; eta ekonomia ez zegoelako «luxuetarako», bestetik. «Balioak beste batzuk ziren», Astarloaren esanetan. Auzoa ere aldatu dela diote. «Jenderik ez dabil kalean...», esan du bietatik gazteenak. «Eskolatik etxera joaten ginen. Otartekoa hartu, motxila utzi eta kalera, ilundu arte», zehaztu du Horrillok.

Bospasei lagun elkartzan ziren. Tartean, mutua, Horrilloren bizilaguna. «Haren idoloak ginen. Askotan pikutara bidaltzen genuen berarekin gauza batzuk ezin genituelako egin. Baina azkenean pena ematen zigun, eta gurekin etortzen zen». Kanikekin, zibarekin edo txapekin jolastera. «Modaren arabera». Orduan bazen buruzagirik auzoan, eta horietako batek erremolatxa gordinik jatera behartu zuen Astarloa. Pikeak ere, mordoa. Batez ere, San Roke auzokoekin. Horrillok argitu du: «Klarionarekin mugatzen genuen eremua, eta elkarri harrika ibiltzen ginen. Ilea guztiz moztuko banu, ziur orduko harrikadaren baten markaren bat edukiko dudala». Mutil bihurriak. Auzokoak. Astarloari *Judas* deitzen zioten, edo *Igor okerra*; «edo deabru. Oraindik ere halaxe deitzen dit Elorretako baserritarrak. 'Deabru!!!', oihu egiten dit. Ikusten nauen bakoitzean emozionatu egiten da», aitortu du. *Campeoni* ezizena ere jarri zioten. *Campeoni di mundi*. Italicieraz. Ezizen hori afizionatuetan Cafe Baquen lehiatzen ziren garaikoa da. Iñigo Zarrabeitiak, Kotxarrik, Erdoizak, Horrillok eta enparauek. «Ba ez dakit. Entrenatzen ari ginela kafetegi batera sartzen ziren, eta nik aurrera jarraitzen nuen. Edo entrenatu ondoren Durangora parranda egitera joan behar zutela esan, eta nik ezetz». Horrillok jarraitu du: «Igorrek oso serio hartzen zuen txirringularitza. Baina maitasunez deitzen genion Campeoni». Izan ere, «txiki-txikitatik» argi zeukan profesionala izan nahi zuela. Ez zitzaion ikastea gustatzen. Horrillok, aldiz, biak uztartzen zituen.

Astarloaren garapenean garrantzi handia eduki zuen haren osaba Angel Ibarluzeak. «Hari gutxi falta izan zitzaion profesionala izateko, eta lagundu egin nahi zidan». Hasiera batean, baina, Ibarluzeari ez zitzaion gustatzen bere iloba Horrilloarekin ikustea. «Belarritako bat neukan, eta Igorri esaten zion konpainia txarrean zebilela», esan du Horrillok, barrez; Horrillo lasaiak. «Hau luzaroan egon daiteke hizketan, idazten... Ni, ordea, urduriagoa naiz, jenio txarra daukat», Astarloak.

Gaztaroko abenturak Horrillo 'medikuaren' errezetak, eta Iratira egindako bidaiak

Behin koskortuta, auzotik, herritik irteten hasi ziren. Bizikletarekin, noski. Horrillo uda guztietan aitaren herrira joaten zen; Valle de la Serenara, Extremadurara (Espainia).



«Hango gauzak kontatzen nizkion Igorri, eta uda batean elkarrekin bizikletan joatea proposatu nion». Artean 17 urte zeuzkan Astarloak. Eta abiatu ziren. Horrillo Zeus bizikletarekin eta zakutoekin, eta Astarloa, motxila bizkarrean, eta Cannondale batekin. «Munduko Txapelketa ere Cannondale batekin irabazi nuen!», bota du derrepentean. Sekulako beroa egiten zuen. Ermua, Bergara, Eskoriatza, Arlaban, Gasteiz, Langraiz, Argantzun... Burgoseraino heldu nahi zuten aurreneko etapa hartan. 180 kilometro. Eta heldu ziren... Baina nola heldu! «Pancorbo inguruan jota nindoan», esan du Astarloak. Eta lagunari on egingo ziolakoan, Horrillok gatza bota zion urez

betetako bidoian. Baina oka egiten hasi zen Astarloa. «Motxila hartu nion, eta Igor nola edo hala heldu zen Burgosera. Atari batean ere oka egin zuen», esan du barrez. Gaua kanpin batean batean pasatu, eta hurrengo egunean etxera itzuli zen Astarloa. Horrillok, ordea, aitaren herriraino jarraitu zuen.

Pare bat urte geroago, berriz, bizikletarekin Iratira joateko ohitura hartu zuten. Irabia eta Elurretako Ama Birjinaren arteko borda batera. «Gogoratzen duzu lehen gauean lastategi batean lo egin behar izan genuela?», gogoratu dio Astarloak Horrillori. «A zer hotza! Eta baserritarrari baimenik eskatu gabe, gainera!». Kanpin gasa eta guzti, Ermutik Iratira. Horrilloren Renault 5 zaharra ere paraje eder horiek ezagututakoa da. «Bai, behin errekatxo bat eta guzti igaro behar izan zuen gizajoak». Gizajoagoa, ordea, Astarloa. Iratira joan ziren, baina ostiral batean etxera itzuli beharra zeukan, larunbatean lasterketa garrantzitsu bat zeukalako. Hasteko, Donibane Garazitik Hendaiara bizikletarekin. «Handik trenean iritsi nahi nuen etxera, baina Zumaian luizi bat zegoela-eta, kieto». Autobusa jarri zieten, «baina ez zidaten bizikleta sartzan uzten. Beraz, euria goian- behean ari arren, jada ilunduta egonagatik, argirik gabe, Ermuraino bizikletaz joatea erabaki nuen. Lasterketa bat neukan hurrengo egunean!». Eskerrak Itziarren, Txixarro dantzaleku parean, herriko batek autoarekin ikusi zuela. Sakelakorik ez zegoen orduan. «Guk, Iratin, zera esaten genuen gure artean: Campeoni iritsiko ote zen?», gogoratu du Horrillok barrez. Abenturazaleak biak.

Garai bertsuan piztu zitzairen biei klasikoekiko grina. Horrillo Hendaiara joaten zen dentistarengana. «Hango tren geltokian arrotzak zitzaizkidan aldizkariak erosten nituen, eta txora-txora eginda gelditzen nintzen ikusten nituen argazkiekin». Gero, Astarloa eta besteekin partekatzen zituen aldizkariok. Eta amesten hasten ziren. Paris-Roubaixekin, Andrei Txmil klasikoazale handiarekin. «Guk Paris-Roubaix urtero-urtero ikusten genuen telebistan».

Jauzia ematerakoan Minguezen filosofia, eta Astarloaren erabakia

Eta profesionaletara pasatu ziren. Aurrena, Horrillo, 1998an. Seguros Vitalicio taldearekin. Javier Minguez zen zuzendaria. «Oso morroi serioa zen, baina bazuen umorea». Halere, harekin pasatutako aurreneko egunak ez ditu Horrillok berehalakoan ahaztuko. Minguez azkar konturatu zen ermuarra ez zela ohiko txirrindularia. «Zera esaten zidan: 'Zer, zuk unibertsitatean ikasten duzu, ez? Eta horregatik besteok baino azkarragoa zarela uste duzu? Ba txirrindularitzan gutxi pentsatu behar da. Nik

pentsatzen dut, eta burua kaskoa eramateko daukazu'». Horrillok erantzuten zion berak ere bazuela pentsatzeko «askatasuna», baina orduan Minguezek berriro: «Horrillo... gehiegi pentsatzen duzula!».

Astarloarena, aldiz, traumatikoagoa izan zen. «Irabazi, edo 15. egiten genuen guk. Igor, ordea, beti hor zebilen: bigarren, hirugarren, laugarren...». Bukatu zen 1998ko denboraldia. «Emitza onak lortu ondoren, Espainiako selekzioarekin Munduko Txapelketa korritu ondoren», Astarloak ezin profesionaletara jauzia emateko talderik aurkitu. Ateak itxi zizkioten, eta ia erabakita zeukan txirrindularitza uztea. «Gehiago eginda ere ez nindutela hartuko pentsatzen nuen». Orduan Anton Ormaetxea Euskal Bizikletako antolatzaile batengana jo zuen. «Hark harreman ona zeukan Italiako taldeekin». Afizionatu mailako talde bat aurkitu zion -Calcestruzzi-Saretina-, eta Italiara. «Lago di Gardako hotel batean egon nintzen aurrena. Gero, berriz, pisu batean taldekide errusiar batekin». Horrilloren ustez, Astarloak «bide bat ireki zuen». «Orduan inork ez zuen kanpora joateko potrorik, baina berak bai». Astarloak jarraitu du: «Iñigo Chaurreau eta Jon Odriozola ere joan ziren Italiara, baina talde profesionaletara...». Horrillok argi dauka: «Kontatu zidanean, potroak ondo jarrita zeuzkala pentsatu nuen. Eta Italian emitza onak lortu zituen. Orduan agertu zen Giuseppe Martinelli handia, orduko Mercatone Uno talde indartsuko burua. «Ormaetxeak *Martino* ezagutzen zuen, eta nitaz hitz egin zion. Gainera, Bruno Leali zen nire zuzendaria, eta hark ere harreman ona zuen Martinorekin. Batetik ondo nenbilerako, eta bestetik Ormaetxeari mesede bat egiteagatik, 2000. urtean Mercatone Unorekin hasi nintzen profesionaletan». Marco Pantani zenaren taldearekin, alegia.

Profesionaletako ibilbidea Arratsalde hura Hamiltonen, eta Freireren garrantzia

Gero hamar urteko ibilbidea osatu du profesionaletan, eta tartean Errepideko Munduko Txapelketa irabazi zuen, 2003an, Hamiltonen (Kanada). Astarloak bere ibilbideaz egiten duen balantzea «oso ona» da, «oso pozik» dago lortutakoarekin, baina «giroa» galdu dela uste du: «Lehen, taldekideak batera joaten ginen colacaoa hartzera. Edo Australian egonda, ba hondartzara: bainu bat hartzera, pare bat garagardo edatera. Zuzendariak, masajistak, mekanikariak... Giroa asko aldatu da, ofizioa txarrerako aldatu da». Horrillok zera bota du segidan: «Lehenago sanoagoa zen, dibertigarriagoa». Apur bat berotu da Astarloa: «Errespetua galdu da. Nik Cipollini edo Musseuw ikusi, eta ez nien bultzatzen egiten. Ez nintzen ausartzen».

Horrilloren ustez, garai bateko taldeak «lagun koadrilak ziren; euren lana egiten zuten lagun koadrilak. Kultura bat zuten, izateko era bat». Orain den-dena da «indibidualagoa». «Hori bai, umetan esan izan baligute hainbeste urte egingo genituela, hainbeste gauza lortuko genituela, ez genukeen sinestuko». Eta beretzat oso garrantzitsua den gauza bat nabarmendu du: «Tropelean bere tokia zein den jakin beharko luke txirrindulari bakoitzak».

Euren ibilbidearen amaiera «penagarria» izan dela diote biek, «baina gauzak horrela gertatzen dira». Batak besteari buruz hitz egin du. «Igor hasieratik egonkortu zen profesionaletan. Talde on batean, gainera. Estimatu izan da korritu duen taldeetan, eta nik badakit hori, haren taldekideek kontatu didatelako. Hazten hazten joan zen, emitza onak lortu zituen. Gogoan dut behin Tirreno-Adriatikoko etapa batean bigarren izan zela, Freireren atzetik. Oscarrek [Freire] esan zidan irabaztea gehien kostatu zaion lasterketa izan dela». Bat-bateko keinu bat egin du Astarloak barrez. Horrillori buruz

mintzatu da ondoren: «Paris-Roubaix, Flandriako Tourra eta halakoak gustatu izan zaizkio, eta pena izan da sekula ez duela lortu horietako batean podiumera igotzea. Baina, aizu, bere aukerak baliatu izan ditu, eta lan bikaina egin du Freirerentzat zein beste taldekideentzat». Freire. Hura gabe beste modu bateko txirrindularia izango zatekeen Horrillo. «Dudarik gabe. Beharbada, garaipen gehiago edukiko nituen, baina gutxiago iraungo nuen profesionaletan».

Etorkizuna, patxadaz Mont Blanc boligrafoa, eta 'delicatessen' kafetegia

Bukatu dute euren ibilbidea. Horrillok hamabi denboraldi egin ditu, eta Astarloak, Hamar. «Nik Igor gogogabetuta ikusten nuen». Baietz dio Astarloak: «Gainera, ez nengoen edozer gauza onartzeko prest». Baina egin dute egin beharrekoa. Eta dirua ere irabazi dute. «Ez futbolariak adina, baina bai... Pelotoiko lagun batek esaten zidan erretiratu ondoren etxea ordainduta banuen pozik egoteko motiboak edukiko nituela», esan du Horrillok. Lortu dute. Astarloak orain *delicatessen* kafetegi bat irekiko du Ermuan, eta abuztuan Miamira (AEBak) joango da urtebete pasatzera. Horrillok, berriz, ez dauka presarik. Zer egin nahi duen pentsatu nahi du. «Nik ongi ikusten dut komunikabideetan», xaxatu du Astarloak. «Beno, Minguezek Mont Blanc boligrafo bat oparitu zidan zure omenaldian». Barre egin dute. Horrillori urte hauetan guztietan pilatu duen eskarmentua beste norbaiti erabilgarri izatea gustatuko litzaioke. *Mundutik* abiatu eta munduan zehar pilatutako eskarmentua.